



II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Portugaletako Udala

Portugaletako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu-establezimenduei dirulaguntzak emateko oinarri-arauak onestea.

Portugaletako Udalbatzak 2024ko maiatzaren 31ean eginiko ohiko bilkuran, besteak beste, hauxe erabaki zuen:

Lehenik: Onestea Portugaletako merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-establezimenduei dirulaguntzak emateko oinarri-arauak, idazki honekin batera doan I. eranskinean xedatutakoaren arabera.

Bigarrenik: Apirilaren 2ko Toki Jaurpidea Arautzeko 7/1985 Legearen 49. artikularekin bat etorritik, horren gainera espedientearen jendaurrean egongo da 30 egunetan, erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita. Espedientearen, halaber, aztergai egongo da udaletxeko Ekonomi Sustapenerako Sailean (Merkataritza Atala), interesdunek aztertzeko modua izan dezaten eta, behar izanez gero, bidezkoesten dituzten erreklamazioak egiteko modua ere izan dezaten. Baldin eta, behin epe hori igarota, erreklamaziorik ez badago, behin-behineko onespenera behin betikoa izango da.

Hona hemen behin-behineko onetsitako aldaketaren testu osoa.

Portugaletan, 2024ko ekainaren 3an. — Alkatea, Mikel Torres Lorenzo



1. ERANSKINA

PORTUGALETEKO MERKATARITZA, OSTALARITZA ETA ZERBITZU ESTABLEZIMENDUEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI-ARAUAK

Portugaleteko merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-establezimenduen irekiera berria eta modernizazioa

1. artikulua. — *Helburua*

Oinarri-arau hauen xedea da itzuli beharrik gabeko dirulaguntzen zuzeneko emakida arautzea, Portugalete udalerriko hiri-ingurunean kalean bertan kokatutako merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-enpresei dirulaguntzak emateko, inbertsio-proiektuak egiten badiutze lerro hauetakoren batean:

Irekiera berrien lerroa

- Jarduera garatzen den establezimenduak abian jartzea eta berriz irekitzea.
- Udalerrian bigarren salmenta-gune bat irekitzea.
- Solairuarteetan, lehen solairuetan edo goiko solairuetan lurzoruaren mailan kokatutako negozioak birkokatzea.
- Negozioak irekitzea Portugaleteko hirigune historikoan (kaleak: Coscojales, Atarazanas, Manuel Calvo, Santa Klara zeharbidea, Salcedo, Rancheria plaza, Torre Salazar plaza, Santa María, Víctor Chávarri, Casilda Iturrizar eta María Díaz de Haro).

Modernizazioaren lerroa

- Negozioa kokatuta dagoen establezimenduak eraberritzea, modernizatzea edo balioztatzea.
- Negozioak modernizatzea Portugaleteko hirigune historikoan (kaleak: Coscojales, Atarazanas, Manuel Calvo, Santa Klara zeharbidea, Salcedo, Rancheria plaza, Torre Salazar plaza, Santa María, Víctor Chávarri, Casilda Iturrizar eta María Díaz de Haro).

Lekualdaketaen lerroa

- Kalean bertan dauden negozioak lekuz aldatzea, Portugalete udalerriatik irten gabe. Dirulaguntza hauen emakida oinarri-arauok arautuko dute.

Oinarri hauetan aurreikusita ez dauden puntuetan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako hura garatzeko erregelamenduan eta haren ondorengo aldaketetan eta prozeduraren arloan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoa beteko da.

2. artikulua. — *Baliabide ekonomikoak*

Dirulaguntzen finantzazioa Portugaleteko Udalaren aurrekontuko 11.4314.481.01 sailaren kargura egingo da.

Aurrekontu-kontsignazioa aurkeztutako eskaera guztiei erantzuteko bestekoa izango ez balitz, aurrekonkutu-sail hori horrexetarako handiagotu ahalko da.

3. artikulua. — *Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna*

Oinarri-arau hauek arautzen dituzten dirulaguntzak beste dirulaguntza batzuekin bateragarri izango dira, edozein delarik ere eta edozein administrazio edo entitatek ematen dituelarik ere, baldin eta guztien batuketa diruz lagundutako jardueraren gostearen %100 baino gehiagokoa ez bada. Hala bada, programa honen bidez emandako dirulaguntza gehiegizkoari dagokion zenbatekoan murriztuko da.

Oinarri hauetan ezarritako dirulaguntzek Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EE) Erregelamenduan ezarritako «minimis» arauak errespetatuko dituzte.



Erregelamendu hori Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatzeari buruzkoa da.

Europar Batasunetik «minimis» laguntzak, edo Europar Batasunaren esparruan horretarako emandako beste jarraibide edo xedapen batzuk. Europar Batasunak ezarritakoaren arabera, estatu kide batek enpresa bakar bati emandako «minimis» laguntza osoa ez da 200.000 euro baino handiagoa izango 3 ekitaldi fiskaletan.

4. artikulua. — *Organo eskuduna*

Oinarri-arauok onesteko organo eskuduna Portugaleteko Udalbatza da.

5. artikulua. — *Helburuak*

Laguntza hauen bidez, Udalak helburu hauek lortu nahi ditu:

- Kaleko merkataritza-, zerbitzu- eta hotel-establezimenduen irekiera berria sustatzea, gazteei arreta berezia eskainiz
- Portugaleten bigarren salmenta-puntuak irekitzea bultzatzea.
- Negozio-ekimen berrien ondorioz hutsik dauden lokalen okupazioa sustatzea, batez ere udalerriko Hirigune Historikoan daudenak (Coscojales, Atarazanas, Manuel Calvo, Santa Klara zeharbidea, Salcedo, Arrantxeria plaza, Orube plaza, Salazar dorrea, Santa Maria, Victor Chavarri, Casilda Iturrizar eta M.^a Díaz de Haro kaleak).
- Solairuarteetan, lehen solairuetan edo beheko solairuetatik gorakoetan kokatutako negozioen birkokapena sustatzea, lurzoru-mailara aldatu daitezen.
- Udalerriko merkataritza- eta zerbitzu-sarea aberastea.
- Portugaleten ezarritako establezimenduen modernizazioa eta lehiakortasuna areagotzen laguntzea, bai eta merkataritza-sektorearen joera berrietara egokitzen ere.

6. artikulua. — *Onuradunak eta betekizunak*

Oinarri-arauotako dirulaguntzen onuradunak ondoko hauek izango dira: enpresa txikiak, haien izaera juridikoa edozein delarik ere, herritarrei irekitako Portugaleteko kaleko establezimendu finkoetan beren jarduera ekonomikoa egiten dutenak aurrez aurreko arretarekin merkataritzako ordutegian, eta irekiera berriak egiteko nola establezimenduak berritzeko inbertsio-proiektuak egiten dituztenak deialdi honetan aurreikusitako epeetan.

Portugaleteko Udalak laguntza bat emango du establezimendu bakoitzeko, jarduera bertan egiten duten pertsona autonomoei kalterik egin gabe. Onuradun izan daitekeen subjektu batek baino gehiagok jarduera ekonomikoa egiten duen salmenta-puntu bereko eskabide bat baino gehiago aurkezten badira, izan pertsona fisikoa izan juridikoa izan, lehenik aurkeztutako eskaera soilik kontuan hartuko da, gainerakoak ezetsita.

Oinarri-arau hauen ondorioetarako, hauexek izango dira irekiera berria, modernizazioa eta lekualdaketa:

1. Irekiera berria. Eskatzaileak jarduera establezimendu horretan hasi badu (EJZn alta emandako dataren arabera) dagokion deialdiaren diruz laguntzeko moduko aldia, edo deialdi horretako eskabideak aurkezteko epea amaitu ondorengo bi hilabeteetan, baldin eta, epe horren barruan negozioa abian jartzeko behar den inbertsioa egin arren, ezin izan badu alta izapidetu EJZn epe barruan. Hori berariaz adierazi beharko da eskabide-eredu normalizatuko erantzukizunpeko adierazpenean eta, gainera, ziurtagiri justifikatzailea aurkeztu beharko da, EJZn alta eman eta gehienez ere hilabeteko epean.
2. Modernizazioa. Establezimenduen EJZko alta-data deialdian aurreikusitako diruz laguntzeko moduko aldia baino lehenagokoa denean.
3. Lekualdaketa. Negozioaren kokalekua deialdiaren bitartean aldatu den kasuetan, jatorri- eta helmuga-establezimendua kalean bertan izanik, biak Portugaleten udalerrian, eta merkataritza-izena, merkataritza-jardueraren titulartasuna eta



hura deskribatzen duen JEZ epigrafea berdin mantenduta (JEZeko alta-bajen ziurtagiriaren arabera).

Oinarri-arau hauen ondorioetarako, merkataritza-establezimendutzat hartuko da jarduera garatzen den espazio fisikoa edo lokala, helbide jakin batean kokatua eta negozioaren izen komertzialari lotua.

Onartu egingo da establezimendu berriari EJZn alta ematea, deialdiaren eskabideak aurkezteko epea amaitu ondorengo bi hilabeteetan, baldin eta, deialdian aurreikusitako epean establezimendu berria abian jartzeko beharrezko inbertsioa eginda ere, ezin izan bada helbide-aldaketa izapidetu EJZn epearen barruan. Gertaera hori berariaz adierazi beharko da eskabide-eredu normalizatuko erantzukizunpeko adierazpenean eta, gainera, justifikazio-ziurtagiria aurkeztu beharko da, gehienez ere hilabete epean, EJZn alta eman ondoren.

Enpresek betekizunok bete beharko dituzte, onuradunak izango badira:

- a) Enpresa txikitzat jo izana. Oinarri-arau hauen ondorioetarako, enpresa txikitzat hartuko da 50 pertsona baino gutxiago okupatzen dituen eta urteko negozio-bolumena edo urteko balantze orokorra 10 milioi eurotik beherakoa duena, ekainaren 17ko 651/2014 EBren Erregelamenduan enpresa txikitzat hartzeko aurreikusitakoaren arabera. Hala badagokio, betekizun hau xedarrizko informazio beharrezkoa Portugaletako Udalak errekerimendua eginda justifikatuko da.
- b) Establezimendua edo, hala badagokio, bere enpresa, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotea eskabidea aurkezteko unean, edo alta hori gehienez ere 2 hilabete epean izapidetzea, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunetik zenbatzen hasita, arestian deskribatutako salbuespenezko egoeraren arabera.
- c) Enpresaren jarduera nagusiak merkataritzako, ostalaritzako edota zerbitzueta-ko sektorearen barruan egon behar du, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta- eta baja- ziurtapenean aurreikusten den ekonomia-jardueraren idazpurua- ren arabera.
- d) Jarduera garatzen den establezimendua Portugaleten kokaturik egotea betiere kalera jotzen duten lokalak izanik, kokaturik dagoen eraikinaren beheko solairue- tan, hain zuzen ere.
- e) Portugaleten helbide fiskala izatea. Oinarri- arau hauen ondorioetarako, helbide fiskala irekiera-baimenari (irekiera-lizentzia edo irekieraren aurreko jakinarazpe- na) dagozkion arielak ordaintzen diren helbidetzat joko da.
- f) Portugaletako Udalean irekieraren alde aurreko jakinarazpenari, obra-lizentzia- ri, titulartasun-aldaketari eta/edo jarduerari edo irekiera-lizentziari buruzko iza- pideak hasita izatea edo, lehendik ezarrita dauden establezimenduen kasuan, izapideok izatea.
- g) Beste administrazio publikoekiko zergak egunean izatea. Halaber, Gizarte Segur- rantzarekiko betebeharrak egunean izan beharko ditu.
- h) Ez zigor ezta administrazio arloko zigorrik jaso ez izana zeinen ondorioz galdu egin den dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera, eta horretara- ko ezgaitzen duen legeko debekuren baten eraginpean ez egotea, sexu-diskri- minazioagatik gertatutakoak barne, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu batekina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekre- tuaren edo Emakumeen eta Gizonen berdintasun Eragingarritako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera.

Halaber, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. arti- kuluan eta ondorengo aldatetetan dirulaguntzen onuradun izateko ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

**7. artikulua. — Deialditik kanpo uzteko suposamenduak****7.1. Deialditik kanpoko entitateak**

- Kasinoak, bingoak, joko- eta apustu-aretoak, loteria-administrazioak, bai eta jarduera nagusia zorte-, enbido- eta zori-jokoekin lotuta duen edozein enpresa ere.
- Salmenta-puntu bererako eskaera bat baino gehiago aurkeztu duten pertsona fisiko edo juridikoak, Onuradunak eta betekizunak 6. artikulua dakarrenarekin bat etorritik.
- Merkataritza-guneetan eta azalera handikoetan kokatutako merkataritza-establezimenduak.
- Erakunde publikoak, sozietate publikoak eta zuzenbide publikoaren arabera eratutako edo araututako beste edozein enpresa.
- Eskubide hori mugatuta edo ezabatuta duten pertsonak. Bereziki, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua beteko da.

7.2. Aurreko deialdiaren onuradun izateagatik kanporatutakoak

- Aurreko deialdiko onuradunek aurkeztutako eskabideak, bai eta haiekin bigarren mailarainoko odol-ahaidetasuna edo ezkontza-ahaidetasuna duten pertsona fisiko edo juridikoek aurkeztutakoak ere, baldin eta dirulaguntzaren xede den establezimendu bererako aurkezten badira.
- Portugalete udalerriko merkataritza-establezimenduak, kalean bertan egonik, leku aldatzeko inbertsioetarako egindako eskabideak, aurreko deialdian programaren onuradun izan badira.

Aipatutako baztertzeepearen ondorioetarako, ez dira kontuan hartuko indarreko deialdiaren babesean nahiz aurreko deialdietakoen babesean egindako eskaerak, baldin eta kontzeptu hauetako buruzkoak badira soilik:

- Lokala egokitzeko, berritzeko edo egokitzeko obrak, eraberritzeak eta instalazioak.
- Zerga-araudira egokitzeko nahitaezkoak diren inbertsioak.
- Irisgarritasunaren arloko inbertsioak.

8. artikulua. — Diruz laguntzeko moduko gastuak

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira benetan egindako eta ordaindutako inbertsioen eta gastuen zenbatekoak, aurreko deialdiko eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik eskabideak aurkezteko epea amaitu arte. Salbuespen gisa, ordainketa geroratuak onartuko dira, gehienez ere deialdia itxi eta 60 egunetara arte, betiere inbertsioari buruzko faktura diruz lagundu daitezkeen aldiaren barruan badago.

Ordainagiria gehienez ere hilabeteko epean aurkeztu beharko da, bertan agertzen den egunetik zenbatzen hasita, 10. artikulua arabera eskabideak aurkezteko aurreikusitako bide berberak erabiliz.

Oinarri-arau hauen ondorioetarako, kategoria hauexetarikoa batean sartzeko moduko berritze- eta inbertsio-gastuak:

- Merkataritza-lokalen barruko eta kanpoko aldeak egokitzeko obrak, hau da, egokitzapena egitekoak, merkataritza-gainazala banatzekoak edo lokalaren irudia hobetzekoak.
- Lokalak hosgabetzeko obrak.
- Irisgarritasunari begirako berritze-lanak, mugikortasun urriko herriarrei sarbidea errazteko oztoko arkitektonikoak kentzekoak.
- Segurtasun-neurriak jartzea (alarma-zentralak izan ezik) eta arrisku-prebentzioa establezimenduan.
- Makineria elektronikoa edo mekanikoa, baldin eta haren funtzionamendua zalan-tzarik gabe negozioaren merkataritza-jarduerarekin erlazionatuta badago, eta, halaber, makinak ezartzeak berekin badakar negozioa modernizatzea, merkaturatze-



ko teknikak hobetzea edota zerbitzuaren kalitatea areagotzea ere bai. Kontzeptu honetan onar daitekeen inbertsioaren zenbatekoa gehienez ere 5.000 eurokoa izango da eskatzaile bakoitzeko.

- Altzariak eta merkataritza-ekipamendua erostea.
- Informatika-ekipamenduak, softwarea, STak, makina erregistratzaileak eta barra-kodeen irakurgailuak. Ordenagailu eramangarriak direnean, ekipamendu informatiko bat baino ez da diruz lagunduko establezimendu bakoitzeko, bai eta unitate periferiko bat ere. Gainera, haren erabilera negoziara bideratuta dagoela justifikatu beharko da, erositako ekipoaren behin betiko kokapenaren argazkiak aurkeztuz, bai eta negozioaren jarduerarekin lotutako premiaren justifikazioa eta erabileraren memoria zehatza ere.

Elementu periferikotzat hartuko da ordenagailu baten unitate zentralera konektatutako edozein aparatu osagarri eta independente, hala nola teklatura, monitorea, sagua, inprimagailua, etab.

- LED teknologiko argiztapen-instalazioak eta funtzionamendua kontrolatzeko eta erregulatzeko sistemak, energia-eraginkortasuneko eta aurrezpeneko irizpideetan oinarrituta.
- Saltokiko erakusleihoen apainketako, diseinuko eta girotzeko teknika berritzaileak ezartzea.
- Aire girotuko, berokuntzako edo airea arazteko instalazioak.
- Energia aurrezteko edo eraginkortasunez erabiltzeko neurriak ezartzeari begirako obrak eta instalazioak.
- Zerga-arloko araudiak betetzeko beharrezkoak diren gailuak, ekipo informatikoak, programak, softwarea eta ziurtagiri digitalak; xede horrekin erositako ordenagailu eramangarrien kasuan, ekipamendu informatiko bat bakarrik lagunduko da diruz onartuko da diruz establezimendu bakoitzeko, bai eta unitate periferiko bat ere.

Ireki berri den lerroan sartutako eskaeretarako soilik, honako hauetan egindako inbertsioa hartuko da diruz laguntzeko modukotzat:

- Softwarea eskuratzea: antibirusa, kudeaketa-softwarea, kontabilitate-softwarea...
- Lineako salmenta duten webguneak sortzea eta ezartzea, eta horiek diseinatzea, gailuetan behar bezala bistartzeko.
- Zerbitzu higieniko-sanitarioak, terapeutikoak, estetikoak, entrenamendu pertsonalekoak, ibilgailuen mekanikakoak edo negozio nagusiari dagozkion zerbitzu profesionaletakoak emateko makineria espezifikoak, haren enpresa titularraren jarduera, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren epigrafearen arabera, honako hauetakoren batean kokatzen denean:
- Lehen atala: enpresa jarduerak:
 - 474. taldea. Arte grafikoak (Inprimaketa grafikoak).
 - 69. multzoa. Konponketak.
 - 887. taldea. Makillatzaileak eta estetizistak.
 - 94. multzoa. Osasuna eta albaitaritza-zerbitzuak.
 - 967 taldea. Kirol-instalazioak eta kirola hobetzeko eskolak eta zerbitzuak.
 - 972. taldea. Ile-apainketako aretoak eta edertasun-institutuak.
- Bigarren atala: lanbide jarduerak:
 - 83. taldea. Osasuneko profesionalak.
 - 84. taldea. Jarduera parasanitariekin lotutako profesionalak.

Makina profesional mota honetan onar daitekeen inbertsioaren zenbatekoa eskatzaile bakoitzeko 5.000 eurokoa izango da gehienez.

Aurkeztutako eskabidea 6. artikuluan jasotakoaren arabera modernizazio-ildoa sailkatzen bada, ez da diruz laguntzeko modukotzat joko makina mota horietan egindako inbertsioa, baldin eta lanbide-jarduera lehen aipatutako epigrafeetan sartuta badago.



Bidalketa- eta garraio-gastuak diruz lagunduko dira, bai eta aurkeztutako fakturretan jasotako muntaketa-kostuak ere, baldin eta aurreko zerrendan jasotako kontzeptuekin bat badatoz.

Egindako inbertsioak enpresaren aktiboari gehitu beharko zaizkio eta fisikoki diruz lagundutako establezimenduan gutxienez urtebetez egon beharko dute.

Diruz lagundu ahal izateko, aktiboak honako hauek egin beharko dira: lehenengo aldiz erabili edo martxan jarri, enpresa eskatzaileak fabrikatu, egin edo garatu ez eta hirugarrenei laga ez izana.

Ez da Balio Erantsiaren gaineko Zerga sartuko diruz laguntzeko moduko kontzeptu gisa.

Kontzeptuok ez dira inolaz ere diruz lagunduak izango:

- Lokala erostea.
- Sakelako telefonoak erostea.
- Garraio-elementuak.
- Negozioaren salgaiak, ezta establezimenduaren erakusketan edo erakusleihoan jarritako elementuak ere, saltzekoak badira eta, beraz, enpresa eskatzailearen salgaiaren zati badira.
- Ekipamendua leasing edo renting bidez erostea.
- Merkataritzako jardueraren elementu suntsikorrak (poltsak, bisita-txartelak, opari-papera eta abar).
- Apaintzeko elementuak.
- Konponketak, piezen edo osagaien ordezteak edo diruz laguntzeko moduko elementuekin erlazionatutako inbertsioak, baldin eta horrek ez badakar berekin berriro haiek erostea.
- Bigarren eskuko aktiboak.
- Negozio-eskualdatzeak.
- Arkitekto tekniko, arkitekto, abokatu, aholkulari eta abarren zerbitzu-sari profesionalak.
- Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) eta, oro har, zerga, tasa edota kontribuzio mota guztiak.

Laguntzaren xede diren inbertsio-proiektuak Portugaleten kokatu beharko dira, eta establezimendu bakoitzeko gutxienez 500 euroko inbertsioa onartu beharko da.

9. artikulua. — Dirulaguntzen zenbatekoa

- Jarduera garatzen den establezimenduak abian jartzeko eta berriz irekitzeko beharrezko inbertsioak: oro har, inbertsio onargarriaren %40 diruz lagunduko dute, gehienez 5.000,00 euro direlarik establezimenduko eta deialdiko.
- Solairuarteetan, lehen solairuetan edo beheko solairuetatik gorakoetan kokatutako negozioen birkokaketa bada lurzoru-mailara, dirulaguntzaren gehieneko zenbateko hori 6.000,00 eurotara igoko da.
- Establezimendua hirigune historikoan badago (Coscojales, Atarazanas, Manuel Calvo, Santa Klara zeharbidea, Salcedo, La Ranchería plaza, Orube plaza, Salazar dorrea, Santa Maria, Victor Chavarri, Casilda Iturrizar eta M.^a Díaz de Haro kaleak), eta aldeztu aurretik etenik gabe gutxienez 3 urtez itxita egon bada, gehieneko zenbatekoa 8.000,00 eurokoa izango da.
- Negozioa kokaturik duten establezimenduak berritzeko, modernizatzeko edo baliolan jartzeko inbertsioak: inbertsio onargarriaren %30 diruz lagunduko da, gehienez 3.000,00 euro direlarik establezimenduko eta deialdiko.
- Negozioak Portugalete udalerriaren barruan kalera lekualdatzeko inbertsioak: inbertsio onargarriaren %30 lagunduko da diruz, gehienez 3.000,00 euro emanda establezimendu eta deialdi bakoitzeko. Lekualdaketa hirigune historikoan kokatu-



tako establezimendu batera egiten denean (Coscojales, Atarazanas, Manuel Calvo, Santa Klara zeharkalea, Ranchería plaza, Orube plaza, Torre Salazar, Santa María, Víctor Chávarri, Casilda Iturrizar eta María Díaz de Haro kaleak), baldin eta establezimendu hori itxita egon bada gutxienez hiru urtez jarraian, gehieneko zenbatekoa 8.000,00 eurokoa izango da.

Inbertsio-proiektuaren kalifikazioa establezimenduen «irekiera berri», «modernizazio» edo «lekualdaketa» gisa ezarriko da, oinarri-arau hauen 6. artikulua («Onuradunak eta betekizunak») diotenarekin bat etorritik.

Inbertsio onargarriaren gaineko ehuneko horiek areagotuz joan daitezke, baldin eta establezimenduak ondorengo inguruabar hauetako bat egiaztatzen badu:

- Hamabost (15) puntu gehigarri gazte ekintzaileen irekiera berrien kasuan, baldin eta gazte horiek EJZren alta-datan 30 urte edo gutxiago badaukate. Baldintza hori bete beharko du eskatzaileak enpresaburu indibiduala denean edo, hala badagokio, ondasun-erkidegoak, sozietate zibilak edo merkataritza-sozietateak osatzen dituzten erkideen edo bazkideen erdia denean gutxienez.
- Bost (5) puntu gehigarri, baldin eta Portugaleten bigarren salmenta-puntuaren irekiera berria edo modernizazioa bada.
- Bost (5) puntu gehigarri, baldin eta sektoreari zuzenduriko Udalaren Prestakuntza Planaren barruko bi prestakuntza-jardueratan gutxienez parte hartu duela egiaztatzen badu. Halaber, Udalak sektoreari zuzendu dion Prestakuntza Planaren barruko hiru jardueratan gutxienez parte hartu badu.
- Hiru (3) puntu gehigarri, baldin eta herriko merkataritza-elkartearen batekin loturaren bat duela egiaztatzen badu.

Dirulaguntzaren ehunekoak ez da inola ere izango onartutako inbertsio osoaren % 45 baino handiagoa, baldin eta inbertsioak abian jartzeko edo berriz irekitzeko badira, edo % 35 baino handiagoa, establezimenduak berritu, modernizatu edo lekualdatzeko inbertsioak badira.

Gehieneko zenbatekoak ez dira aldatuko deskribatutako inguruabarren bat izateagatik portzentaje-igoerak dituzten espedienteetan, eta artikulua honetan bertan aurreikusitako mugak aplikatuko dira beti.

10. artikulua.—Eskaera, aurkezteko epea eta agiriak

Eskaera-eredua eta nola aurkeztu

- Merkataritza-establezimendu bakoitzeko dirulaguntzarako eskabide bakarra aurkeztuko da establezimenduak burutu nahi dituen inbertsio guztietarako.
- Dirulaguntzaren eskaera oinarri-arau hauekin batera datorren eskaera-orri eredua betez egingo da. Eskaera Portugaleteko Udalak onetsitako eredu ofiziala ez den batean egiten bada, ez da onartuko.
- Eskaera Ekonomia Sustapen eta Enplegu Sailari zuzenduko zaio eta eskatutako agiriekin batera aurkeztuko da deialdi bakoitzak zehazten duen tokian.

Epea eta aurkezteko tokia

- Informazioa eta eskaera-eredua Portugaleteko Udalaren Erregistro Orokorrean, Merkataritzako Bulego Teknikoan, Herritarren Arretarako Bulegoan eta Udalaren webguneetan (www.portugalete.org eta www.portugaletecomercial.org) daude eskuragarri.
- Eskabideak aurkezteko epea 2 hilabetekoa izango da, deialdia BAOan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eta, betiere, deialdia egin den urteko irailaren 30a baino lehen. Eskaera behar bezala beteta, deialdi hau BAOan argitaratzen den hurrengo egunetik dagokion deialdian zehazten den data arte aurkeztuko da tokiotan: Portugaleteko Udalaren Erregistro Orokorrean (jendaurreko ordutegia: astelehenetik ostiralera 8:00etatik 14:00etara) edota San Roke plazan dagoen Herritarren Arretarako Bulegoa (astelehenetik ostiralera 14:30etik 20:15era eta larunbatetan 9:00etatik 13:45era), Portugaleteko Udalaren egoitza elektronikoan,



bai eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako lekuen gainerako erregistro elektronikoetan ere.

— Ez da edonola ere zehaztutako epeak bete beharra salbuetsiko.

Agiriak

Eskaera-eredu normalizatuarekin batera, entitate eskatzailearen agiri hauek dira aurkeztu beharrekoak:

- Eskatzailea pertsona fisikoa bada, NANaren fotokopia.
- Pertsona juridikoen kasuan, identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia, NANaren fotokopia eta eskatzailearen ordezkaritza-ahalmena edo eskatzailearen edo ordezkariaren ordezkaritza-ahalak.
- Pertsona juridikoen kasuan, enpresa edo entitatea eratzeko eskrituren fotokopia, ondorengo aldaketa eta guzti. Halaber, dagokion erregistroetan izen-ematea.
- Nortasun juridiko propiorik gabeko elkarte zibilen kasuan, Foru Ogasunak zigilatutako kontratu pribatua aurkeztuko da, bai eta IFK txartela eta elkarte osatzen dutenen NANen fotokopia.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan eskatzailearen alta eta bajen ziurtagiri historikoa.
- Tributu-betebeharrak eta Gizarte-Segurantzarenak egunean dituelako Foru Ogasunaren ziurtagiri eguneratua. Dirulaguntzen Arautegiaren 22. artikulua dioenaren arabera, dirulaguntzarako eskaera-orria aurkezteak badakar berekin eskatzailearen baimena, organo emaileak artez lortzeko 887/2006 EDren 18. eta 19. artikuluetan aurreikusten diren inguruabarren egiaztapena ziurtagiri telematikoen bitartez, baldin eta hori teknikoki posible bada. Hala bada, eskatzaileak ez du dagokion ziurtagiririk aurkeztu beharko. Nolanahi ere, eskatzaileak baimena beren-beregi ezetsi ahal du. Hori horrela, hark aurkeztu beharko ditu ziurtagiri guztiak aurreikusitako terminoetan, 887/2006 EDren 22.4 artikulua dioenarekin bat etorritik.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiri eguneratua, enpresak edo erakundeak betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena. Artikuluaren arabera, dirulaguntzaren eskabidea aurkeztuz gero, eskatzaileak baimena emango dio organo emaileari zuzenean egiaztatu ditzan 887/2006 Errege Dekretuaren 18. eta 19. artikuluetan aurreikusitako inguruabarrak, ziurtagiri telematikoen bidez, baldin eta hori teknikoki posible bada; kasu horretan, eskatzaileak ez du dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko. Hala ere, eskatzaileak berariaz uka dezake baimen hori, eta, kasu horretan, ziurtagiria aurkeztu beharko du, 887/2006 EDren 22.4 artikulua dakarrenarekin bat etorritik.
- Hirugarrenen alta-agiria, enpresa edo erakunde eskatzaileak eta dagokion banku-erakundeak sinatua eta zigilatua (banku-datuen inprimakia, eskaera normalizatuaren ereduaren laguntza helbideratzeko).
- Hala badagokio, merkataritza-elkarren bateko kidea delako ziurtagiri jatorrizkoa.
- Hala badagokio, Renova programan edota Udalaren Prestakuntza Planaren barruko prestakuntza-jardueretan parte hartu duen ziurtagiriaren kopia konpultsatua.
- Inbertsio-proiektuaren oroitidazki deskriptibo laburra.
- Diruz lagun daitezkeen aktiboak argi eta garbi identifikatuta dituzten fakturak baino ez dira onartuko eta ez dira kontzeptu kodetuak onartuko. Halaber, ez dira onetsiko BEZa kenduta 50 eurotik beherako zenbateko fakturak.
- Aurkeztutako fakturen ordainagiriaren kopiak. 200 euro baino gehiagoko ordainketen justifikazioa banketxe-transferentzia bidez, banketxe-ziurtagiri edo ordainagiri bidez egiaztatu beharko da. Aurreko agiri horietan guztietan ordainketaren jasotzailea eta igorlea argiro egon beharko dira identifikatuta.



- Diruz laguntzeko aurkezteko elementuen argazkiak, baldin eta ordenagailu eramangarriak badira. Merkataritzako establezimenduan instalatu edo kokatu ondoren aterako dira argazkiak, haien kokapen behin betikoa egiaztatu ahal izan dadin.
- Entitate sinatzaile bakoitzaren erantzukizunpeko aitorpena, eskabide arautuaren ereduaren arabera:
- Erantzukizunpeko adierazpena, eskaera normalizatuko ereduaren arabera:
 - Enpresa txikitzat jotzeko baldintzak betetzea, EBren ekainaren 17ko 651/2014 Erregelamenduaren arabera.
 - Proiektu bererako beste erakunde batzuei eskatutako edo haiengandik jasotako beste laguntza edo dirulaguntza batzuk, zenbatekoa eta data adierazita, edo, hala badagokio, horiek falta direla adierazita.
 - Enpresak azken hiru urteetan jaso dituen «minimis» laguntzak.
 - Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikuluan aurreikusitako itzulketabetebeharrik edo debekurik ez izatea.
 - Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan xedatutakoa betetzea.
 - Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3. artikuluan ezarritako betebeharrak bere gain hartzeko konpromisoa hartzen du.
 - Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuan ezarritako betebeharrak bere gain hartzeko konpromisoa hartzen du.
 - Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik ez izatea, ezta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexu-diskriminazioagatik gertatutakoak barne daudelarik.

11. artikulua. — Akatsak zuzentzea

Eskaerak eskatutako datu guztiak ez balekartza, edota eskatutako agiri guztiak ez baleude edo akastuna balitz, eskatzaileari hamar (10) egun balioduneko epea emango litzaioke, errekerimenduaren jakinarazpeneko hurrengo egunetik hasita, akatsak zuzen ditzan edo derrigorrez aurkeztu beharreko agiriak aurkez ditzan. Epe hori akatsak zuzendu gabe igaroz gero, eskaera ezetsi egingo da eta, aurretik irizpena eginda, prozedura artxibatuko da, urriaren 1eko 39/2015eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Erregimen Juridikoaren Legearen 68. artikulua dioenari jarraiki.

12. artikulua. — Enpresa onuradunen betebeharrak

Dirulaguntza hauetako pertsona fisiko edo juridiko onuradunak behartuta daude betetzera Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 14. artikuluan datozenak bai eta zehazki honako hauek ere:

- Emandako dirulaguntza onartzea. Izan ere, enpresa onuradunari dirulaguntza eman zaiolako jakinarazpenaren egunetik hamabost eguneko epean enpresak berak beren-beregi eta idatziz uko egiten ez badio, onartua izan dela ulertuko da.
- Portugaleteko Udalaren Ekonomia Sustapen eta Enplegu Sailak eskatutako informazio guztia ematea, jasotako dirulaguntzen eginkizunei dagokienez.
- Portugaleteko Udalarik jakinaraztea xede bera duten beste dirulaguntza batzuk jaso baditu. Berebat, dirulaguntza emateko edozein inguruabar objektibo edo subjektiboren berri eman beharko dio entitateari.



- Jarduera ekonomikoan aritzea, dirulaguntzen emakidaren datatik zenbatzen hasita gutxienez urtebetez dirulaguntzaren xedea den establezimenduan. Establezimendua epe hori bukatu baino lehenago ixten bada, enpresa onuradunak hala jakinarazi beharko dio Udalari eta jasotako dirulaguntzaren zenbatekoaren zati bat itzuli beharko dio, 13. artikulua aurreikusten duenarekin bat etorritik. Itzuli beharreko zenbateko hori establezimenduaren jarduera bertan behara utzi den egunetik dirulaguntza jaso ondorengo urtebetera doan denboraren heinekoa izango da. Salbuespen gisa, negozio bat Portugalete udalerriko kaleko beste establezimendu batera lekualdatzeak ere ekarriko du baldintza hori bete beharra.
- Jasotako funtsen aplikaziorako agiriak eta justifikatzeko fakturak gordetzea, zeren eta, agiri horiek guztiak egiaztatu eta ikuskatu ahal baitira.
- Jasotako funtsen itzulketa egitea ez betetzeagatikako suposamenduetan oinarri-arau hauek ezartzen dutenarekin bat etorritik.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testuategia onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarritako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan xedatutakoa betetzea eta Administrazioaren laguntzak jasotzen dituzten erakundeei ezarritako betebeharrak beren gain hartzea.
- Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuan ezarritakoa betetzea.

13. artikulua. — Ez betetzeagatikako erantzukizuna

Oinarriotako betebeharrak ez betetzeak, eskatutako datuak ezkutatzeko edo faltsutzeak Udalari tajuzko diru-kopuruak itzultzea dakar, dirulaguntzako zenbatekoa jasotzen den unetik hasita, berandutzako interesak barne daudelarik.

Hauexek izango dira dirua itzuli behararen suposizioak:

- Dirulaguntza jaso duen establezimenduan jarduera ekonomikoa ez egitea, gutxienez urtebetez, dirulaguntza ematen den egunetik aurrera (lekualdaketa izan ezik).
- EJRn alta edo aldaketa izapidetzeko betebeharra ez betetzea deialdia itxi ondorengo 2 hilabeteetan.
- Dirulaguntzaren xedea ez betetzea.
- Dirulaguntzaren emakida dela eta, onuradunei ezarritako baldintzak ez betetzea.
- Kontrol-jarduketak egin nahi ez izatea edota oztopoak jartzea.
- Dirulaguntza garatutako jardueraren kostua baino handiagoa izatea.

Ez betetze horren larritasuna eta garrantzia aintzat hartuta, aurrekoaz gain, isunak jar daitezke arau-hauste administratiboengatik, 38/2003ko Dirulaguntzen Lege Orokorra eta uztailaren 21eko 887/2006ko Erregearen Dekretuak ezarri bezala. Dekretu horretan azaroaren 17ko 38/2003ko Legearen Araudia onartzen da eta gero deialdietan dirulaguntzak emateko desgaitasun-zigorra dakartza. Horretarako, Lege horrek zehazten duen zehapen-prozedurari jarraituko zaio.

14. artikulua. — Izapidetza, ebazpena eta dirulaguntzaren abonua**Izapidetza**

- Dirulaguntza emateko proposamena kide anitzeko organo batek egingo dio organo emaileari, instrukzio-organoren bitartez.
- Azken hori Portugaletako Udaleko Ekonomia Sustapen eta Enplegu Arloa izango da.
- Portugaletako Udaleko Ekonomia Sustapen eta Enplegu Arloari dagokio instrukzio-organoa den aldetik, aurkeztutako eskabideak aztertzea eta ebaluatzea. Izan ere, haiek egoki ulertzeko eta ebaluatzeko bidekoesten duen behar beste agiri edota informazio eskatu ahalko du.



- Espedientearen instrukzio-organoak ofizioz egingo du datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatze egoki bidezkoesten dituen izapideak. Alta, datuon arabera emango da ebazpen-proposamena.
- Behin eskaera onartuta, espedienteari hasiera emango zaio dirulaguntzaren izapideak egite aldera.
- Onartutako eskaera aztertu eta ebaluatu ondoren, instrukzio-organoak dagokion txostena eta ebazpen-proposamena egingo ditu, eta organo emaileari helaraziko dizkio, eskatutako dirulaguntza eman edo ukatu den berariaz adierazita, zenbatekoa den adierazita.
- Kide anitzeko organoak, deialdia arautzen duten oinarriak eta instrukzio-organoaren ebazpen-proposamena aztertu ondoren, eskabideak ebaluatuko ditu eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 27ko 38/2003 Lege Orokorraren 22. artikuluan aipatzen den nahitaezko txostena egingo du.

Kide anitzeko organoaren kideak ondoko hauek izango dira:

- Ekonomia Sustapen eta Enplegu Arloko Zuzendaritza, presidente gisara.
- Kontratazio eta Erosketa Arloko zuzendaritza, presidentearen ordezkio gisara.
- Ekonomia Sustapen eta Enplegu Arloko administraria, idazkari gisara.
- Kontratazio eta Erosketa Arloko administraria, idazkariaren ordezkio gisara.
- Ekonomia Sustapen eta Enplegu Arloko teknikaria, kide gisara.
- Merkataritza Arloko teknikaria, kide gisara.

Kide anitzeko organoa balio osoz eratuko da Presidentetzan eta Idazkaritzan dauden pertsonarekin edota kideen erdiekin.

Ebazpena

- Ebazteko organo eskuduna Alkatetza izango da.
Eskaerak erregistro-ordena zorrotzean ebatziko dira, espedienteko dokumentazioa osatuta dagoen unearen arabera, horretarako bideratutako partida ekonomikoan dagoen aurrekontu-kreditua agortu arte.
- Hartzen den ebazpenean zehaztuko da eskatutako dirulaguntza eman den edo, hala badagokio, ukatu den, eta, hala badagokio, onuradunaren izen soziala eta emandako dirulaguntzaren zenbatekoa adieraziko dira. Bigarrenen kasuan, sozietatearen izena eta ukatzeko arrazoiak jasoko ditu. Dirulaguntza emateko ebazpena eskatzaileei banan-banan jakinarazteaz gain, Portugaleteko Udaleko Gardentasunaren Atarian argitaratuko dira erakunde onuradunen zerrenda eta emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 55.h) artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Prozeduraren ebazpena ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, deialdia argitaratzen denetik zenbatzen hasita, eta betiere dagoen urteko abenduaren 30a baino lehen.
Epe hori igaro eta ebazpen espresua jakinarazi ez bada, erakunde eskatzaileak ulertu beharko du bere eskaera ezetsi egin dela administrazio-isiltasunez, hargatik eragotzi gabe geroago berariaz ebaztea.

Ordainketa

- Emandako dirulaguntza, bankuko transferentzia dela medio, entitate eskatzaileak esandako kontu korrontean abonatu da, dirulaguntza ematen den ordainketa bakarrean.

15. artikulua. — Ikuskaritza

Diruz lagundutako proiektuei dagokienez, Ekonomia Sustapen eta Enplegu Sailak bidezkoesten dituen ikuskapenak eta egiaztapenak egingo ditu. Horren kariatara, enpresa onuradunek haiei eskatzen zaien informazio osagarri oro aurkeztu beharko dute. Alta, ikuskapenetan enpresak aurkezturiko fakturretan eta argazkietan agertzen diren inber-



tsioak establezimenduan egindakoei dagozkienak direla baita establezimenduan bertan egin direla ere egiaztu beharko da nagusiki.

16. artikulua. — *Dirulaguntzaren baldintzen aldaketa*

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako beste laguntza batzuekin batera lortzen bada, eta, hala badagokio, helburu bererako beste diru-sarrera edo baliabide batzuk lortzen badira, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da, betiere aldaketak ez-betetzeak estaltzen ez baditu, eta oinarri hauetan onuradun izateko ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen badira eta hirugarrenei kalterik eragiten ez bazaie. Ondorio horietarako, alkate-udalburuak dagokion aldaketa-ebazpena emango du, emandako dirulaguntzen zenbatekoak doitzeko edo, hala badagokio, emandako laguntza baliogabetzeko.

17. artikulua. — *Onuradunen informazioari buruzko konfidentzialtasuna*

Portugaleteko Udalak dirulaguntza hauen onuradunei buruzko informazioa egitasmoaren esparrurako soilik erabiliko delako engaiamendua hartzen du. Ondorioz, ezin izango da bestelako helburu batzuetarako erabili.

Datu Pertsonalen Babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa) ezarritakoaren arabera tratatuko dira datu pertsonalak.

18. artikulua. — *Dirulaguntzen publizitatea*

Eskabide-orriak aurkezteko epea amaituta eta eskabide guztiak ebatzita, emandako dirulaguntzen zerrenda argitaratuko da azaroaren 17ko Diru Laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 18. artikulua eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 30. artikulua (azaroaren 17ko DiruLaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra onesten duena) dakartena bete nahian.

**ESKAERAREN EREDU ARAUTUA**

Izen-abizenak
..... NAN harremanetarako telefonoa
..... jakinarazpenerako helbidea (kalea, zenbakia eta solairua) posta-
kodea herria lurraldea.....
jakinarazpenetarako helbide elektronikoa
norberaren izenean edo

Enpresaren legezko ordezkaritza enpresaren datuak

Egoitza soziala:

IFK:

Portugalete,

(Izenpea)

Sektorea: Merkataritza ☐ Ostalaritza ☐ Zerbitzuak ☐

Irekieraren lizentziaren titularra:

- ☐ Alokairuaren erregimeneko establezimendua
☐ Jabegoaren erregimeneko establezimendua

Helbide soziala

Udalerria:

PK:

Salmenta-puntu kopurua:

Izen komertziala(k):

Kalea eta zk:

Telefonoa:

Helbide elektronikoa:

Webgunea:

**HAUXE ESKATZEN DU:**

Merkataritzako, ostalaritzako eta zerbitzuetako establezimenduen irekiera berrirako eta modernizazioarako dirulaguntzen programa baliatzea, Portugalete,

(Sinapea)

Portugaleteko Merkataritzako Bulego Teknikoa
944 729 353

Portugaleteko Udala
Ekonomia Sustapen eta Enplegu Saila
La Canilla eraikina, bigarren solairua
48920 Portugalete – Bizkaia
comercio@portugalete.org
Jendaurreko ordutegia: 8:00etatik 14:00etara

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

- ☐ 1. Eskatzailea pertsona fisikoa bada: NANaren fotokopia.
- ☐ 2. Pertsona juridikoen kasuan: enpresa eskatzailearen identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia, enpresa eratzeko eskriturak eta eskatzailearen ordezkariaren ordezkaritza-ahalmen edo eskatzailearen edo ordezkariaren ordezkaritza-ahalak.
- ☐ 3. Pertsona juridikoen kasuan, enpresa edo entitatea eratzeko eskrituren fotokopia bere ondorengo aldaketekin eta dagozkion erregistroen izen-ematea.
- ☐ 4. Nortasun juridiko propiorik gabeko sozietate zibilen kasuan, Foru Ogasunak zigilatutako kontratu pribatua aurkeztuko da, baita identifikazio fiskaleko txartelaren kopia eta sozietateak osatzen dituztenen NANen fotokopiak ere.
- ☐ 5. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta-bajen ziurtagiri historikoa.
- ☐ 6. Foru Ogasunaren ziurtagiri gaurkotua, dirulaguntzaren enpresa edo entitate eskatzaileak bere tributu-betebeharrak egunean dituela egiaztatzekoa. *
- ☐ 7. Gizarte-Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiri gaurkotua, enpresak edo entitateak bere betebeharrak egunean dituela egiaztatzekoa. *
 - * Dirulaguntzen Erregelamenduaren 22. artikuluan ezarritakoaren arabera, dirulaguntzaren eskabidea aurkeztuz gero, eskatzaileak baimena emango dio organo emaileari zuzenean egiaztatu ditzan 887/2006 Errege Dekretuaren 18. eta 19. artikuluetan aurreikusitako inguruabarrak, ziurtagiri telematikoen bidez, baldin eta hori teknikoki posible bada; kasu horretan, eskatzaileak ez du dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko. Hala ere, eskatzaileak berariaz uka dezake baimen hori, eta, kasu horretan, ziurtagiria aurkeztu beharko du, 887/2206 Errege Dekretuaren 22.4 artikulua dioenarekin bat etorritik.
- ☐ 8. Hirugarrenen alta-agiria, enpresa edo entitate eskatzaileak eta dagokion banketxeak izenpetu eta zigilatutakoa (banketxeko datuen inprimakia dirulaguntzaren eskaeraren eredu arautuaren helbideratze-efektuetarako).
- ☐ 9. Hala badagokio, merkatori-elkarteren bateko bazkidea delako ziurtagiri jatorrizkoa.
- ☐ 10. Hala badagokio, Renova programan edota Formakuntzarako Udal Planaren barruko formakuntza-jardueretan parte hartu duen delako ziurtagiriaren kopia.
- ☐ 11. Egindako inbertsioa egiaztatzen duten fakturen kopia, eskaeraren xede diren diruz lagun daitezkeen kontzeptuak jasotzen dituenak. Diruz lagun daitezkeen aktiboak argi eta garbi identifikatuta dituzten fakturak baino ez dira onartuko, eta ez dira onartuko kontzeptu kodeak, baldin eta horien zenbatekoa, BEZa kenduta, 50 eurokoa edo txikiagoa bada.

Fakturaren gutxieneko zenbateko hori ez da aplikatuko establezimenduetan COVID-19 kontrol eta prebentzio-neurriak ezartzeko lerrora bideratutako inbertsioetan.



- ☐ 12. Aurkeztutako fakturen ordainagirien kopiak. 200 eurotik gorako ordainketen justifikazioa ban-
ku-transferentziaren, banku-ziurtagiriaren edo ordainketa-laburpenaren bidez egiaztatuko da.
Agiri horietan argi eta garbi identifikatu beharko dira ordainketaren hartzailea eta igorlea.
- ☐ 13. Diruz laguntzeko aurkeztutako elementuen argazkiak, ordenagailu eramangarriak direnean,
merkataritza-establezimenduan instalatu edo jarri ondoren ateratakoak, bertan behin betiko
non dauden egiaztatu ahal izateko.

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Izen-abizenak
NAN enpresa honen ordezkartzan

HAUXE AITORTZEN DU:

- ☐ Dirulaguntzen deialdi honetan ezarritako baldintzak eta betebeharrak ezagutu eta onartu egi-
ten dituela. Halaber, enpresak bere eskaera-inprimakietan emandako datuen egiazkotasuna
ziurtatu egiten du.
- ☐ Azken kontabilitate-zenbakia ixten den datan agertzen den plantilla, osotara, per-
sonakoa da (langile autonomoak barne daudela).
- ☐ Aurkeztutako eskabidea ez dela justu aurreko deialdian diruz lagundutako establezimendu bati
buruzkoa, ez eskatzaile berak aurkeztutako eskabide bati buruzkoa, ez bigarren mailarainoko
odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasunezko lotura duen beste bati buruzkoa, 7.2 artiku-
luaren hirugarren paragrafoan aurreikusitako kasuetan izan ezik. Aurreko deialdiko onuradu-
nek aurkeztutako eskabideak, bai eta onuradunekin bigarren mailarainoko odol-ahaidetasuna
edo ezkontza-ahaidetasuna duten pertsona fisiko edo juridikoek aurkeztutakoak ere, baldin
eta dirulaguntzaren xede den establezimendu bererako aurkezten badira.
- ☐ Urteko negozio-bolumen edo balantze orokorra ez dela 10 milioi eurotik gorakoa EBren ekai-
naren 17ko 651/2014 Erregelamenduaren arabera.
- ☐ Eskaera honetaz gain, dataren egunera arte dataren egunera arte inbertsio-proiektu honetara-
ko eskaera aurkeztu duela eta laguntza ere eskatu duela ondoren zehazten ditugun erakunde
publiko nahiz pribatu hauetan: (bete ezik, ulertuko da bestelako ondorioz ez duela eskatu).

Eskaeraren urtea	Erakundea	Programa	Eskatutako zenbatekoa	Emandako dirulaguntza

- ☐ Eskaera honetaz gain, azken hiru urteetan Europar Batasunaren gidalerroek ezarritako –mín-
imis- arategiari loturiko ondoko dirulaguntza hauek lortu dituela:

Eskaeraren urtea	Erakundea	Programa	Emandako dirulaguntza



- ☐ Emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan xedatutakoa betetzen duela.
- ☐ Konpromisoa hartzen duela Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3. artikuluan Administrazioaren laguntzak kontratatzen, hitzartzen edo jasotzen dituzten erakundeei ezarritako betebeharrak bere gain hartzeko: tratu-berdintasunaren, aukera-berdintasunaren eta langileen aniztasunarekiko eta desberdintasunarekiko errespetuaren printzipioen arabera gidatzeko betebeharra; estatistikak eta azterlanak egokitzea; edozein motatako hizkera sexista ez erabiltzea edozein euskarritan, eta zuzendaritza-organoetan eta kide anitzeko organoetan gaitasun, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izatea.
- ☐ Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuaren 15. artikuluan ezarritakoa betetzeko konpromisoa hartzen duela.
- ☐ Ez zigor ezta administrazio arloko zigorrik jaso ez izana zeinen ondorioz galdu egin den dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera, eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean ez egotea, sexu-diskriminazioagatik gertatutakoak barne, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarritarako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera.
- ☐ Ez izatea itzulketa-betebeharririk, ezta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikuluan aurreikusitako debekurik ere.
- ☐ Portugaleteko Udaleko Ekonomia Sustapen eta Merkataritza Sailari baimena ematea Administrazio honetan eta beste erakunde publiko batzuetan aurkeztutako agiriak eta argazkiak egiazkoak direla eskatu eta/edo egiaztatzeko, deialdi honetako dirulaguntzen onuradun izateko eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.
- ☐ Dirulaguntzaren xede den establezimenduan jarduera ekonomikoa gutxienez urtebetez gauzatzea, dirulaguntzak ematen diren egunetik zenbatzen hasita (lekualdaketak izan ezik). Establezimendua adierazitako epea baino epe laburragoan ixten bada, enpresa onuradunak itxiera horren berri eman beharko dio Udalari, eta emandako dirulaguntza itzuli beharko du, jarduera utzi zenetik urtea amaitu arte igarotzeke dagoen denboraren zati proportzionalen, barne dagoelarik dirulaguntzaren zenbatekoa jasotzen den unetik dagozkion berandutze-interesak.

6. artikuluan agertzen den salbuespenezko suposamenduan soilik betetzeko

Zure negozioa martxan jartzeko beharrezko inbertsioa deialdian aurreikusitako diruz laguntzeko epean egin ondoren, ezin izan duzu JEZn alta izapidetu, ez eta establezimenduaren daturik aldatu ere, epe horren barruan. hortaz,

- ☐ Konpromisoa hartzen du Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta edo aldaketa izapidetzeko, gehienez ere bi hilabeteko epean, dirulaguntzen programa honen deialdia ixten den egunetik zenbatzen hasita, eta Portugaleteko Udalean Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta eman izanaren ziurtagiria aurkezteko, gehienez ere hilabeteko epean, izapidetzen denetik zenbatzen hasita. Bestela, enpresa onuradunak itzuli egin beharko du emandako dirulaguntza, dirulaguntzaren zenbatekoa jasotzen duen unetik sortutako berandutze-interesak barne.

Eskatzailearen izenpea:



INBERTSIO-PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Dirulaguntzaren xedea den inbertsioa guztira eurokoa da, BEZik gabe.

A. Eginiko inbertsioaren oroitidazkia

(Egindako inbertsioaren laburpen txikia)



INBERTSIOAREN KOKAPENA ETA FAKTUREN KOADROA

B. Eginiko inbertsioa

Establezimendu bakarrari dagokion faktura-zerrenda

Establezimenduaren izena	Helbidea	Zk.	Udalerria	PK

Zk.	Data	Faktura zk.	Deskribapena	Hornitzailea	Zenbatekoa (BEZik gabe)	Ordaintzeko data
				GUZTIRA		

Behar beste orrialde erabiliko dira.



DATUEN ALTA EDO ALDAKETA / ALTA O MODIFICACIÓN DE DATOS

Pertsona edo entitate interesatuaren ezagupenerako datuak / Datos identificativos de la persona o entidad interesada	
NAN / IFK	
DNI / CIF	
Abizenak eta Izena / Sozietaren izena	
Apellidos y nombre / Razón social	
.....	

Datos bancarios / Banku datuak			
Bankua / Banco	Sukurtsala / Sucursal	KD / DC	K/Korrontea / C/Corriente
Kontu korrontearen jabea / Titular de la cuenta			

Sólo para cuentas corrientes en el extranjero (A rellenar por el banco) / Atzerriko diru-kontuetarako soilik (Bankuak bete behar)	
IBAN	

Interesatuaren adostasuna Conformidad de la persona interesada	Bankuaren adostasuna Conformidad del banco

Portugalete,

PORTUGALETEKO UDALEKO DIRUZAINITZA
TESORERÍA DEL AYUNTAMIENTO DE PORTUGALETE

**Datu pertsonalak babestea eta eskubide digitalak bermatzea**

Portugaleteko Udalak, datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko arautegi aplikagarria, 2016/679 Europako Erregelamendu Orokorra, Datuak Babesteari buruzkoa, eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, kontuan hartuta, jakinarazi nahi dizu zure datu pertsonalak Udaren titulartasuneko fitxategi batean txertatu eta tratatu egingo dituela, fitxategiaren ezaugarriak hauek direlarik:

- Tratamenduaren arduraduna. Portugaleteko Udalak. IFK: P4809100C. Helbidea: Solar plaza z. g. 48920 Portugalete (Bizkaia).
- Tratamenduaren helburua. Portugaleteko Udaren aurrekontuko nahiz aurrekontuz kanpoko obligazioen ordainketa guztien tramitazioa
- Tratamenduaren legitimazioa. Datu pertsonalak tratatzeko oinarri legezko edo juridikoa administrazioaren eta herritarren arteko harreman juridikoa da, eskatutako prozedura administratiboa izapidetze aldera.
- Datuen hartzaileak Datuak ez dira lagako, legezko betebeharra eta, bereziki, Gardentasun Publikoari buruzko araudiaren ondoriozko betebeharrak izan ezik
- Datuak kontserbatzeko epea. Harreman juridikoak iraun bitartean gordeko ditugu zure datu pertsonalak. Behin harreman hori bukatuta, eginbehar legezkoak betearazteko beharrezko epeetan gorde beharko ditugu zure datuak.
- Interesdunaren eskubideak datuak tratatzeari dagokionez. Bere datu pertsonalen irispidea, datuak zuzentzeko, ezerezteko, tratamendua mugatzeko, aurka egiteko edo transferitzeko eska dezake. Horretarako, idatzizko eskaera bidali beharko dio Portugaleteko Udalari (IFK: P4809100C; helbidea: Solar plaza z. g. 48920 Portugalete (Bizkaia)).
- Nolanahi ere, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari ere egin diezaioke erreklamazioa (Beato Tomás de Zumárraga kalea 71, 3, 01008 Vitoria-Gasteiz).

Protección de datos personales y garantía de derechos digitales

Teniendo en cuenta la normativa aplicable en materia de protección de datos personales y garantía de los derechos digitales, el Reglamento General Europeo 2016/679, de Protección de Datos, y la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, el Ayuntamiento de Portugalete le informa de que sus datos personales serán incorporados y tratados en un fichero de titularidad municipal, con las siguientes características:

- Responsable del tratamiento. Ayuntamiento de Portugalete, con CIF P4809100C y domicilio en Plaza del Solar s/n, 48920 Portugalete (Bizkaia).
- Finalidad del tratamiento. Tramitación de todos los pagos de obligaciones presupuestarias o no presupuestarias a cargo del Ayuntamiento de Portugalete.
- Legitimación del tratamiento. La base legal o jurídica para el tratamiento de los datos personales es la relación jurídica derivada entre la administración y la ciudadanía, a fin de tramitar el procedimiento administrativo solicitado.
- Destino de los datos. No está prevista la cesión de datos, salvo obligación legal y, específicamente, las obligaciones derivadas de la normativa sobre Transparencia Pública.
- Plazo de conservación de los datos. Conservaremos sus datos personales durante la relación jurídica y, una vez finalice esta, durante los plazos necesarios para el cumplimiento de las obligaciones legales.
- Derechos de la persona interesada en cuanto al tratamiento de sus datos. Puede solicitar el acceso a sus datos personales, su rectificación, supresión, la limitación del tratamiento, oposición o la portabilidad enviando una solicitud por escrito al Ayuntamiento de Portugalete, con CIF P4809100C y domicilio en la Plaza del Solar s/n, 48920 Portugalete (Bizkaia).

En todo caso, puede presentar una reclamación ante la Agencia Vasca de Protección de Datos (calle Beato Tomás de Zumárraga, 71, 3, 01008 Vitoria-Gasteiz).»